

Itziar Alkorta Idiakez  
Andoni Ibarra  
Gregorio Monreal

## Joxe Azurmendirekin Nafarroan barrena (2014-2020)

Zazpi urtez jarraian ibili ginen laurok Nafarroako bazterrak zeharkatzen eguneko txangoetan, 2014an hasita. Garai hartan, Joxeren osasunak ondo eusten zion oraindik.

Donostiatik, udaberriko eguzki goxoaren azpian abiatzen ginen laurok Erreinu Zaharrean barrena: herrixka apartatuen, baseliza abailduen eta galtzada zaharren bihurguneetan ezkutatutako historien xerkan aritzen ginen.

Nabaria zen Joxek Nafarroarekiko zuen maitasun berezia, ziurrenik Erriberriko frantziskotarretan interno izan zen garaian errotua. Baina, maitasunaz gain, harritzekoa zen Euskal Herriko historiari buruz zuen ezagutza: edozein bazterretan zerbait interesgarria topatu, eta hortik narrazio historiko mamitsu bat abiatzen zuen maiz.

Joxerekin ibiltzea beti zen gozagarria: jarrera hurbil eta sotilekoa, adeitasuna ageri zuen lagunartean, protagonismorik bilatu gabe. Entzule fina zen, baina harekin elkarrizketa lotzea ez zen beti erraza; sarri isilik egoten zen lagun ibiltarien artean.


Agian, isilune horiek elikatzen zituen barne-tentsioetako bat Euskal Herriko giro intelektualari buruzko etsipena zen. Ziurrenik, faltan hartzen zuen Alemaniako akademiaren zorrozatasuna eta objektibotasuna –maiz Frantziako eredu intelektualaren idealismoari kontrajartzen ziona–. Han ezagutu zuen Maite, artearen historian jantzitako emakume kultua, geroztik haren bizitza osoko bidaide izan zena.

Oro har, euskal gizarteak hartu zuen norabidearekiko ikuspegi zorrotz eta independentea zuen Joxek. Herriaren gabeziak deserosotasunez ikusten zituen, eta lagunaren aurkako auzi eta erasoek barrutik hunkitzen zuten. Etsipen horrek sentimendu-mailako urruntze bat eragiten zion eta melankolia tonua ematen zion haren diskurtsoari.

Agian horregatik gotortu zen hizkuntzaren erabileran, bere ekoizpen intelektuala euskara hutsez egiteraino. Horregatik ere, ingurune politiko eta intelektual ahularen aurrean, euskal mundu-ikuskerara funtzional bat eraikitzen saiatu zen, non gizakiak bere burua mundua eginez osatzen duen: «Unibertsoa nola beztitzen dugun, hala janzen gaitu hark; mundua eginez, geure burua egiten dugu».

Gaur, Joxe joan den honetan, utzitako ondarea dugu gogoan. Egunerokoarekiko zuen distantziaz, Azurmendik erakutsi zuen filosofoa ez dela gaurkotasunaren morroi, baizik eta harengandik abiatuta sakontzen duela. Baliteke, hain justu, aldentze horrek ematea haren obrari gaur oraindik distira berezia.

Hemendik aurrera, haren obra Euskal Herrian bertan sakon ezagutu eta barneratzea dagokigu, gure bidegurutze historiko eta intelektualetan argia egin dezakeen gogoeta baita. Alabaina, haren ekarpenak herrigintzaren mugak gainditzen dituen neurrian, gure ardura da haren pentsamenduari nazioarteko proiektzioa ematea –ez ikuspegi itxi batetik, ezta erabilera interesatuen menpe ere–, beste hizkuntza eta testuinguruetan ere irakurri eta jaso dadin.



Joxe Azurmendi Armentiaiko basilikako portikoan (2016).  
Argazkiaren egilea: Gregorio Monreal.